

Lurruna kristaletan: apala da eskola-gazteen alfabetizazio-maila ikus-entzunezkoetan

**Jose Inazio Basterretxea, Amaia Andrieu, Petxo Idoiaga,
Estefanía Jiménez eta Txema Ramírez de la Piscina**
EHUko irakasleak

Euskal Herriko eskola-gazteak, hamalau eta hamazortzi urte bitarteko gazteak eta nerabeak, ikus-entzunezko teknologien eta beroriek garraiatzen dituzten eduki sinbolikoen kontsumitzaile handiak dira oro har. Euskal Herriko neska-mutilek denbora asko eta diru dezente eskaintzen dizkiete teknologia komunikatzaile berriei.

Halere, kontu eta jarrera kritiko zabalik gabeko kontsumoa praktikatzen dute eskola-gazte horietako askok. Internet darabilte, telebista darabilte... ez beti jakinda zein mundutan barneratzen diren, ez beti jarrera eta ikuspuntu beregain eta kritiko batetik abiatuta horietara.

GAKO-HITZAK: Nerabeak eta gazteak · Ikus-entzunezkoak · Alfabetizazio mediatikoa · Euskal Herria.

The Basque Country's school students –young people and adolescents between the ages of fourteen and eighteen– are, on the whole, avid consumers of audio-visual technologies and of the symbolic content they transmit. Boys and girls in the Basque Country devote much time and a considerable amount of money to the new communication technologies.

Yet many of these school students engage in consumption without any broad critical attitudes or concern. They use the Internet and TV but are not always aware of the kinds of worlds they are becoming immersed in, and do not always do so from the starting point of an independent and critical attitude and perspective towards these mediums.

KEY WORDS: Adolescents and young people · Audio-visual products · Media literacy · Basque Country.

Jasotze-data: 2010-03-22. *Onartze-data:* 2010-06-14.

1. Sarrera

2003. urtean abiatu zituen bere lanak *Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza*¹ izeneko ikerketa-taldeak. Disziplina anitzekoa da lan-taldea, eta bere baitara bildu ditu Euskal Herriko Unibertsitateko sailletako zenbait irakasle. Hiru ardura-ardatz nagusitara lotzen ditu HGH taldeak bere lanak: Hedabideak (telebista, irratia, Internet, prentsa, zinema...), Gizartea eta Hezkuntza-sistema.

2009-2010 ikasturtean, inkesta berri bat egin da Euskal Herriko eskola-institutuetan nerabeek eta gazteek ikus-entzunezko komunikazio-teknologiekin dituzten harremanak neurtzeko eta nerabe zein gazte horiek duten alfabetizazio-gradua analizatzeko, betiere ikus-entzunezko produktuen alorrean ainguraturik jakin-mina².

Gure HIPOTESI NAGUSIA da ahula dela ikus-entzunezko komunikazioaren gaineko gaitasuna gure gazteen artean. Irudiaren gainean, lilura burugabe eta arin moduko bat bizi du gazteak, gogoetazko analisisetatik urrun.

Gure artean gutxi aztertu da gaia, baina gure mugetatik at kontuan hartzeko moduko literatura zientifiko ugaria sortu da azken urteotan³.

INKESTAREN UNIBERTSOA Euskal Herriko eskola-gazteak izan dira (14-18 urte bitartekoak), bai eskola, bai institutu, bai eta Lanbide Heziketako zentroetakoak ere; guztira: 107.467 ikasle. Horietatik, 598 gaztek osatu dute unibertso zabal horren lanerako lagin ordezkagarria⁴.

1. HGH: Andrieu, A.; Basterretxea, JI; Idoiaga, P; Jiménez, E.; Ramírez de la Piscina, T.; Zarandona, E.

2. Aipatu inkesta burutzeko, ikerketa-talde honek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso du 2009-2010 ikasturtean; eta landa-lana aurrera eramateko, Aztiker SL enpresaren zerbitzuak baliatu ditu.

3. Gure artean diziplina hau berri samarra baldin bada ere, hemendik kanpo batzuek 40 urte daramatzate gai honen bueltan. Ere muondoko irakasle hauek egindako lanak: Mastermann (1979, 1980, 1985, 1993), Luckham (1975), Firth (1976), Golay (1973), Gerbner (1983), Jones (1984), Duncan (1996). Berriagoak dira beste hauek: Nathanson (2002, 2004), Buckingham (2005), Stein & Prewett (2009); Larson (2009), Livingstone & Brake (2010) eta Gainer (2010). Gaztelaniaz lan interesgarri asko egin dituzte beste irakasle/autore hauek: Kaplun (1998), Aparici (1994), García Matilla (1996, 2004), Aguaded (1998, 2000) eta Orozco (1999). Oso kontuan hartzekoa da, baita ere, Huelvako *Comunicar* aldizkaritik azken hogeita bost urteotan egin den lan eskerga. Ikuspuntu instituzional batetik, Unescok ere lan dezente egin du. 1980az geroztik argitalpen ugari kaleratu ditu gai honen inguruan. Maila teorikotik aldenduta eta arlo praktikora etorrira, beste autore batzuk saiatu dira *Media Literacy* ikasgeletan sartzen. Horra hor, besteak beste, irakasle hauen lanak: Hall & Whannel (1964), Galtung & Ruge (1965), Berger (1972), Cohen & Young (1973), Hall (1977) eta Bonney & Wilson (1983) (azken hori Australian zentratuta). Barkaezina litzateke zerrenda honetatik kanpo uztea Celestin Freinet maisu frantziarra. Bera da pedagogia herritarren aita, baita kazeta eskolan sartu zuen aitzindaria ere.

4. Ikerketa-eredu kuantitatibo klasikoetan oinarrituta daude artikulu honetan aurkezten diren emaitzak. Landa-lana 2009ko azaroa eta 2010 otsaila bitartean gauzatu da, galdera-sorta autoaplikatuaren bidez, eta ikasgelan zerabilten hizkuntza-ereduaren arabera erantzun diete gazteek 29 galderari (euskaraz, frantsesez edo gaztelaniaz). Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria) % +/- 4,1eko da unibertso osorako, % 95,5eko konfiantza-mailarako, p=q% 50,0 hipotesirik kontrakoarenentzat. Guztira, hogeita hamahiru ikastetxetan bete da galde-sorta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdin. Pribatuak izan dira horietatik hamabost ikastetxe eta publikoak hamazortzi. Lagina eraikitzeko, kontuan hartu da ikasleen sexua, ikasketa-maila eta ikus-entzunezko jardueren inguruko esperientzia.

Honako hauek izan dira ikerketa honetan erabili ditugun IKER-GALDERAK: a) eskola-gazteek ba ote dakiten zein baldintzaren arabera funtzionatzen duen ikus-entzunezkoen lengoaiak, b) zer moduz moldatzen diren eskola-gazteek teknologia komunikatzaileekin, c) ikus-entzunezkoen ekoizpena zein lan-urratsetan eta zein profesional-motatan oinarritzen den definitzeko gai ote diren, d) ikus-entzunezkoek transmititzen eta sustatzen dituzten ideologia eta balioak identifikatzen ba ote dituzten, eta e) zelan baloratzen duten nerabeek eta gazteek ikus-entzunezko produktuen alor estetikoa.

LANDA-LANEAN, galde-sorta autoaplikatuaren formula erabili dugu informazio hori jasotzeko: inkestatuak berak bete du bere galde-sorta, lehenago taldean bildua izan da bere adinkideekin eta inkestatzaile batek inkestaren mekanika azaldu dio, bai eta galde-sorta horretarako material audiobisuala erakutsi ere⁵. Galdera batzuek erantzun kodifikatu eta itxiak planteatzen zituzten; beste batzuek, aldiz, irekiagoak (inkestatuari zazpi bat lerroko espazioa utziz bere inpresioak idazteko).

Oro har, LAU IRIZPIDE NAGUSIREN ARABERA BALORATU ditugu hogeita bederatziko galderen erantzunak: i) ikasleak ongi edo gaizki erantzun ote dion kuestioari, ii) ikasleak eskainitako azalpenen bidez, ikusi egiten ote den edo ez gazteak ulertzen duela galdetzen zaiona eta erantzuteko gai ote den, iii) ongi edo ongi-bidean erantzun duen kasuetan, osatua ote den gazteak eskainitako azalpena, eta iv) azalpenetan erabilitako hizkera ote den behar bezain teknikoa eta jaso⁶.

2. Aurretiko lanak

2005. urtean argitaratu zituen HGH taldeak bere ikerketa-lanen lehen albistea (Basterretxea; Idoiaga; Zarandona; eta Ramírez de la Piscina, 2005). Bertan azaldu genuen ezen Euskal Herriko gazteak komunikazio-teknologia berrienetako aparatu ugariaren jabe direla, teknologia horiek eskura izateak ahalbidetzen diela gure gazteei lehenago ez bezalako kontsumo-maila potentziala edukitzea kultura-industrien produktuen artean. Gazteek eurek aitortzen zigutenez, beharrezkoak dira teknologia horiek euren bizitzarako, eta euren azturak ere baldintzatuta daude aparatu horien erabilera dela-eta.

2006. urtean, telebistan eta ikus-entzunezko hedabideetan ainguratu genituen gure ikerketa-ardurak (Ramírez de la Piscina; Basterretxea; Idoiaga eta Zarandona, 2006). Bertan azaldu genuenez, hobekuntza teknologikoak ez du berekin ekarri teknologia komunikatzaileek garraiatzen dituzten edukien deskodetzea beregain eta kritikoa garatzeko irizpide intelektualik. Eskola-gazteek sarritan nahasten dituztela errealitatea eta fikzioa, ez dutela antzematen ikus-entzunezko lengoaiaren eraikitako diskursoaren polisemia.

2007. ean ikusi zuen argia HGH ikerketa-taldearen lehen monografiak gai beraren inguruan (Basterretxea; Idoiaga; Zarandona; Ramírez de la Piscina, 2007).

5. Bi iragarki izan dira horiek. Galde-sorta betetzen hasi aurretik, bi aldiz erakutsi direnak ikasgelan. Autoak iragartzeko bi anuntzio izan dira, bi etxerenak (*Corolla* eta *Focus* modeloenak).

6. Lengoiaren atalari, hogeitau puntu aitortu zaizkio. Teknologiarri, hamabost. Ekoizpenari, hamabi. Jasoketari, hamahiru. Ideologiarri, hogeita bost. Estetikari, hamabost. Eta horrela osatu dugu balizko ehun puntuko graduatze-sistema bat.

Bertan aipatu genuen ezen ikus-entzunezko diskurtsoaren kultura txertaturik bizi dela gure gaztea. Irudiaren lilura bizi duela. Eta eduki sinbolikoen eroale gisa, letra idatzia ez dela batere lehenetsitako tresna komunikatiboa.

Gaur egun, eskolak beste sozializatzen du herritarra gizarte-komunikazioak. XXI. mendeak eskatzen duen hezkuntza osatu berri horri begira, honako hau da alfabetizazio mediatikoa: *era desberdineko komunikabideetako edukiak kontsumitzeko, aztertze eta sortze ahalmen jaso.*

Hartara, heziketa-moduko bat da alfabetizazio mediatikoa eta, bere zentzurik demokratikoenean, ahalbidetu beharko lioke herritarrari nahikoa trebetasun eta abilezia komunikatzailea, egun munduak darabiltzan media-formatu guztietan, modu egokian igorle- nahiz hartzaile-papera bereganatzeko.

Modu dinamikoan ulertu behar dugu ikus-entzunezko alfabetizazioa. Mundu garatuan, ez zaio alfabetuari eskatzen letrak ezagutzea bakarrik. Mundu modernoak erretorika eta argudioa eskatzen dizkio. Poesia ulertzea, metafora ulertzea, elipsiaren balioa harrapatzea... horiek guztiak beharrezkoak ditu herritarrak mezu konplexu modernoak ulertzeko. Gizarte-komunikazioaren mezuen deskodetze zuzena, naturala, ez da nahikoa. Irakurketa denotatiboak ez dira nahikoa, konnotatiboak ere behar ditu herritarrak mezu mediatikoa ulertzeko.

3. Euskal Herriko eskola-gazteen alfabetizazio-maila (2009-2010)

Ikus-entzunezkoetan garatu beharreko gaitasuna definitzeko, honako lerro eta ardatz nagusi hauetaz baliatu gaituzke⁷:

Lengoaia. Mundu garatuan bizi den herritarrak ikus-entzunezko lengoaiaren osagaiak identifikatzeko gaitasuna garatu behar du, bai eta tresna komunikatzaile berrien artean hedatzen diren era guztietako mezuen eta egitura narratiboen zentzua eta esangura analizatzeko ere. Horretan, gai izan beharko luke komunikazio-generoak desberdintzeko, marra argiz banatuz fikzioa eta errealtatea.

Teknologia. Alegia, ikus-entzunezko komunikazioa bideragarria egiten duten tresna teknikoaren funtzionamendua ezagutu behar du pertsona alfabetatuak. Eta, era berean, tresna horiek mezua nola baldintzatzen duten ulertzeko ere. Berebat, tresna horietako errazena bere kabuz erabiltzeko gaitasuna izan beharko luke.

Produktzioa. Ezagutu beharrekoa da ikus-entzunezkoaren ekoizpenean parte hartzen duten profesionalen eginkizuna zein den, bai eta ikus-entzunezko diskurtsoa eraikitzeko beharrezkoak diren urrats genesikoak ere ikus-entzunezkoetan gaitasun egokia izateko. Gizaki modernoak jakin beharko luke ikus-entzunezko espazio modernoetan bere eduki sinboliko propioa eta berezituak ekoizten eta hedatzen.

7. Joan Ferrer Universitat Pompeu Fabra irakaslearen koordinaziopean Espainiako hamazazpi autonomia-erkidegotako unibertsitatetako ikerketa-taldeak (zeintzuen baitan gure taldea egon, badagoen) gai hauek analizatzeko proposatutako irizpideak hartu ditugu gogoan. Artikulu honetan aurkezten dugun ikerketaren moduko bat ari gara garatzen ikerketa-talde horiek guztiak Espainiako erkidegoetako populazio orokorrari buruz.

Jasoketa-maila eta jasoketa-kontzientzia. Interaktibitatea ahalbidetzen duten teknologiei esker batez ere, gizaki alfabetatuak gaitasun nahikoa izan beharko luke norberak bere burua ezagutzeko entzule aktibo moduan. Gaitasuna izan beharko luke ikus-entzunezkoen mezuetako osagai emotiboak eta arrazionalak desberdintzeko eta baloratzeko.

Ideologia eta balioak. Ikus-entzunezko komunikazioaren aurrean, gizaki modernoak garatu behar du bere irakurketa-gaitasun kritikoa. Antzemateko kontsumitzen duen horretan igorleak utzi dituen munduaren ulerkera ideologiko, etiko eta estetiko berezituak. Gizaki modernoak jakin behar du eduki sinbolikoen transmisioak berekin dakartzala komunikazioaren paradigmatic kanpoko interesak: ekonomikoak, politikoak, kulturalak eta sozialak.

Dimentsio estetikoak. Esan nahi baita ezen herritar modernoak gaitasun berezitua garatu behar duela eduki sinbolikoak interpretatzeko baita alderdi estetikitik ere. Ikus-entzunezkoetan alfabetatutako gizakiak jakin behar du antzematen eduki sinboliko horiek dakarten berrikuntza, dela formala, dela tematikoa. Ona litzateke orobat, ikus-entzunezko mezuek bestelako agerpen mediatiko eta artistikoekin erlazionatzeko gaitasuna edukitzea ere.

IKERKETA-GALDERAK, sei dimentsio hauetara mugatu dira.

- a. zein alfabetizazio-gradu duten eskola-gazteek ikus-entzunezkoen lengoaian,
- b. zein gaitasun-gradu duten eskola-gazteek teknologia komunikatzaileetan,
- c. zein ezagutza-maila duten eskola-gazteek ikus-entzunezkoen ekoizpenaz,
- d. zein jasoketa-maila erakusten duten eskola-gazteek ikus-entzunezkoen aurrean,
- e. zein pertzepzio duten eskola-gazteek ikus-entzunezkoek transmititzen eta sustatzen dituzten ideologia eta balioei buruz; eta
- f. zein ezagutza-maila duten eskola-gazteek ikus-entzunezkoen alor estetikoan.

4. Dimentsio nagusien araberako emaitzak

Honako atal honetara ekarri ditugu inkestaren datu eta emaitza nagusiak, arestian aipatutako sei dimentsio aipagarri horiek kontuan hartuta. Hartara, lengoia, teknologia, produkzioa, jasoketa, balioak eta estetika arloei buruzko puntuaketa ebaluatzailea da ondoren ikusiko dena. Alegia, ideia orokor bat marraz lezakeena nerabeek eta gazteek balizko azterketa bat egin beharko balute euren ikus-entzunezko gaitasun komunikatzaileei buruz.


4.1. Lengoia

Ikus-entzunezko lengoaiaren osagaiak identifikatzea eta horietako bakoitzaren rol edo eginkizuna antzematea eta deskribatzea da dimentsio honetan neurtu gura

izan duguna. Bost galdera berezitu planteatu dira galde-sortan, eta atal hau baloratzeko gehienenezko ebaluazioa hogeit puntutara makurtu da⁸.

Bildutako erantzunen arabera, ikusi dugu Euskal Herriko nerabe eta gazte eskolatuak ez daudela oso jantzita ikus-entzunezko lengoaiari dagokionez. Aprobatu batera hurbil daitezkeen gazteak dira laginaren laurdena; suspentso argia dute beste hiru laurdenek (ikus 1. grafikoa).

1. grafikoa: lengoaiaren dimentsioa, ezagutza eta azalpena (0-20 puntu).



Iragarkien lengoaiaren deskribapena eta azalpena eskatzen zuten galderetan, ezein ikaslek ez du lortu aprobatzeko besteko puntuaziorik. Inork ez du lortu aprobatu argirik. Iragarkien lengoaiaren osagaiak identifikatzean, oso argudiaketa ahula eta gutxi landua eskaini dute eskola-gazteek. Zehaztasunik gabekoa. Giltza audiobisualei erreferentzia gutxi eginda.

Adibide bat jartzearen. Gazteei galdetzean ba ote zekiten zergatik pizten duen *Corrolla* iragarkiak autoa erosteko grina autoaren erabilera ohikoarekin lotutako argudio eta arrazoi argirik eman gabe, gehienen erantzuna zen «ez dakit». Bakarren batek esan du «neska ederra erabiltzen duelako kotxearen propaganda egiteko».

Aldiz, delako argazki-serie batetik irudi bat hautatzea eta alde zurretik eman-dako titular batekin ezkondu beharreko ariketan, eskola-gazteen erdiek asmatu dute argazki egokienarekin. Hautu horren zergatiak azaltzeko unean, baina, ahulak izan dira erantzunak. Eta ez dute batera erabili ikus-entzunezkoen terminologia klasikorik.

Lengoaiaren atal honetan, esangura- eta kronologia-racord direlakoak neurtu behar zituen galderari emandako erantzuna da denen artean baikorrena: ia ikasle guztiek asmatu dute serie egokiarekin.

Datuen arabera, ematen du eskola-gazteek ez dutela diskurtsorik begien aurrean dutena deskribatzeko. Halere, ematen du kasu praktiko eta jakin baten aurrean badakitela hautua egiten eta galderari zuzen-antzean erantzuten.

8. Bost itaun horietatik hirutan, iragarki publizitario biri buruzko hausnarketa eskatu da, eta horietan eskatzen zen azaltzea zein arrazoibide eta argudio-bide zerabilten iragarki horiek (10 puntu). Beste itaun bat, eskatzen zuena bederatzi argazkiko bilduma batean argazki jakin bat hautatzea, alde zurretik emandako titular batera ondoen ezkon zitekeena (5 puntu). Eta beste batek eskatzen zuen istorio bat kontatzea, galde-sortak ematen zuen argazki-kolekzio bateko irudiak modu esanguratsu eta kronologikoan antolatuz (5 puntu).

Azken hiru jakingarritasun. Bat: eskolen jabetzari erreparatuz gero (alegia, publikoak ala pribatuak diren), ikusten da ezen nota hobek ateratu dituztela hezkuntza-sistema publikoan txertatuta dauden ikasleek. Bi: ikasleen generoari erreparatuz gero, oro har, emaitza hobek dituzte neskek, mutilek baino: atal honetako aprobaturien kopurua, bikoiztu egiten da nesken kasuan. Hiru: jakina da hezkuntza-sistema zeharo desberdinak erabiltzen direla Ipar nahiz Hego Euskal Herrietan, ikus-entzunezko lengoaiaren deskribapen-ariketa honetan, bada Ipar Euskal Herriko eskoletan aurkitu ditugu notarik txarrenak.

Denotazioak eta konnotazioak bereizteko orduan, planoen deitura formalak zehaztean, enkoadratzearen funtzio komunikatiboa interpretatzean, sekuentziaren interpretazio sinbolikoa egitean, pertsonaiek irudikatzen zituzten hierarkiak balioestean eta agintearen agerpena deskodetzean ahul dabilta gure gazteak.


Laburbilduz esan daiteke ezen Euskal Herriko eskola-gazteak ez dakiela ikus-entzunezko lengoaiaren ez gramatikarik ezta erretorikarik ere.

4.2. Teknologia

Teknologiaren alorrean aurkitu ditu ikerketa-talde honek galde-sortako erantzun egokien kopururik altuena. Tresna komunikatzaileen erabilera manualaren deskribapenetan aurkitzen dira emaitzarik eta onenak galde-sorta osoan.

Oro har esan daiteke Euskal Herriko eskola-gazteek ongi ezagutzen dutela tresna komunikatzaileak nola abiarazi eta itzali, zer egin litekeen haiekin kontsumo-mailan. Datuen arabera, hamar gaztetik bederatzik gaitzen dira teknologia komunikatzaileak hartzailen-mailan askatasunez erabiltzeko. Beregainak dira erabat atal horretan (ikus 2. grafikoa).

2. grafikoa: teknologia, ezagutza eta azalpena (0-15 puntu).



Bost itaun planteatu dira galde-sortan gaitasun teknologikoa neurtzeko, eta hamabost puntu eskaini hori guztia ebaluatzeko. Ikasleen ehuneko zazpia baino gutxiago izan da ezgai atal honetan.

Teknologiaren alderdi kontsumigarrian, erosi eta etxera eraman daitezkeen aparatuaren izendapena eta horren eginkizun teknologikoa deskribatzea eskatzen zuen itaunean, hamar gaztetik zortzik baino gehiagok lortu du espero zitezkeen emaitzarik eta gorena.

Irudiak teknikoki manipulagarriak izan ote daitezkeen galdetuta, hamar ikaslelik bederatzik esan du baietz, manipulagarriak direla irudien ezaugarri teknikoak (koloreak, zehaztasunen maila...). Inkestaturen ehuneko hamabosta izan da gai, gainera, hori egin dezakeen programa informatikoaren marka identifikatzeko ere.

Alabaina, galdetuz gero, teknologia komunikatzaile horiei esker mugitzen den informazioaren jabetza intelektualari buruz, gazteek kale egiten dute nabarmen: inkestaturen ehuneko laurogeiak ez daki, esate baterako, Interneten dauden irudiak edo musikak berrerabilgarriak ote diren, irabazi ekonomikorik batere bilatzen ez den kasuan.

Adinarekin hobetzen doan ezagutza da, nabarmen, teknologiarri buruzkoa: ikaslea zenbat eta nagusiago, orduan eta emaitza hobea teknologiarren atal honetan.

Oro har, Euskal Herriko eskola-gazteak teknologia komunikatzailearen erabil-tzaile trebeak dira.


4.3. Produkzioa

Ikus-entzunezko produktua sortu eta banatzeko lan-errutinen eta profesionalen rolen gaineko ezagutza eta deskribapena bilatzen ditu atal honek. Lau galdera planteatzen ditu eta hamabi puntuko ebaluaziora errenditzen da.

Galderek eskatzen dute batez ere: a) ikus-entzunezkoen produkzio-lanetan aritzen diren profesionalen lan-jarduerak deskribatzea (esate baterako, errealiza-dorearenak, errejidorearenak...); eta b) produktu bat ekoizteko beharrezkoak diren prestaketa-lanen zerrenda ematea.

Datuen arabera, esan daiteke ezen produkzio-atl honen ezagutza-maila txikia dela oso gure gazteen artean (ikus 3. grafikoa).

3. grafikoa: produkzioa, ezagutza eta azalpena (0-12 puntu).



Eskuragarri diren puntuen ehuneko berrogeita hamarretik gora, oso gazte gutxi daude: ehunetik sei edo zazpi bat. Hortik behera daude beste guztiak. Gure gazteek ez dakite zein diren errealizadore baten lan-funtzioak, edo zuzendari bate-nak. Gauza dira kameralari baten funtzioak eta errealizadorearenak parekatzeko eta beraien artean nahasteko. Ikus-entzunezko baten ekoizpenean esku hartzen duten kategoria profesionalak zein diren eta profesional bakoitzak zer egiten duen produkzioan zehatz eta mehatz jakitetik urrun daude.

Halere, produkzio-lanen zerrenda idaztean, eginbeharreko guztiak zerrendatu ez arren, nahikoa giltzarriak izan daitezkeen batzuk modu egokian aipatu dituzte gazteek. Hala nola: hamarretik zazpik *aurreprestaketa* (lanaren diseinua) aipatu du eta hamarretik seik *ekoizpen-lan* batzuk zerrendatu ditu (grabatzea, batez ere).

Baina, produkzio-lanen artean, muntaketa-edizioarekin zerikusi zuzena duten lanak dira ezezagunenak gazteen artean (hamarretik bik bakarrik aipatzen dute horrelakorik). Alegia, gaztearentzat grabatzen den hori da emititzen dena. Gazteak ez du detektatzen ikus-entzunezkoetan, irudiak hautatu egin behar direla, beraien artean josi, batzuetan ahotsa jarri gainerik, edo tituluak erantsi.

Produkzioaren munduaren deskribapena egiteko orduan, kontuan hartzeko moduko desberdintasun estatistikoak markatu dituzte aldagai bik: adinak eta generoak. Adinez aurrera joan ahala, produkzio-sistemaren ezagutza-maila handiagoa hauteman dugu. Generoaren kasuan, ematen du neskak jantziago daudela mutilak baino.

4.4. Jasoketa


Jasoketa- eta entzuketa-gaitasuna honetara definitu dugu: norberak bere burua entzule aktibo moduan ezagutzeko gaitasuna, bai eta ikus-entzunezkoen mezueta osagai irrazionalak eta arrazionalak desberdintzeko irizpide argiak edukitzea ere.

Hiru galdera proposatu dira, eta hamahiru puntuko ebaluazioa praktikatu da. Gazteei galdetu zaie ea iragarki bat ikusi eta gero, dena delako produktu hori erosiko ote luketen, eta zer dela-eta jokatu zuketzen modu batera nahiz bestera.

Galdetu zaie ea ba dakiten entzuleriaren fideltasuna neurtzeko aparatirik ba ote den. Eta galdetu zaie ba dakiten ikusten dutenaz kexu baldin badira ba ote dagoen instituziorik kexak bideratzeko eta hedabideei erantzukizunak eskatzeko.

Datuen arabera, esan daiteke ezen jasoketa aktiboaren kontzientzia eta gaitasun-maila apala dutela gure eskola-gazteek (ikus 4. grafikoa).


4. grafikoa: jasoketa (0-13 puntu)



Zehazki galdetuta ea ba ote dakiten iragarkiek zergatik duten edo izan dezaket eragina erosleengan, inkestatuen erdiek esan dute ez dakitela arrazoia; heren batek eman ditu bakarrik argudioak hori azaltzeko.


Galdetuta ea telebistek kexatzeko motiborik ematen ote duten, alegia ba ote dagoen zertaz kexatua zabalitzen dituzten edukiak direla-eta, gazteak oso kritiko azaldu dira (ikus 5. grafikoa).

5. grafikoa: telebisten jarduna, kexatzeko modukoa ote?



Hedabideek izan dezaketen portaeraz kexu denean inor, nora jo dezakeen galdetuta, erantzunak oso dispertsoak izan dira (ikus 6. grafikoa).

6. grafikoa: kexak bideratzeko, zer egin?



Kexak bideratzeko, kontsumitzaileen elkarteak aipatu dituzte hogeita hamarrek; telebista bera, berrogeita hamarrek; Arartekoa, bostek; justizia-administrazioa, seik; eta ikus-entzuleen elkarteak, lauk⁹. Ez dakite ongi nola jokatu.

4.5. Ideologia eta balioak

Ikerketa-talde honen aburuz, ikus-entzunezko komunikazioaren aurrean, gizaki modernoak garatu behar du bere irakurketa-gaitasun kritikoa, antzemateko kontsumitzen duen horretan igorleak utzi duen berniz ideologikoa, etikoa zein morala.


Hogeita bost puntuko ebaluazioa planteatu dugu atal honetan. Bost galderaren bidez garatu da inkestaren alor hau: batetik, eskatu zaie esplikatzen zer nolako gogoeta pizten dien iragarki publizitarioetako batek (*Corolla* autoarenak), bai eta iragarki hori dela-eta, zer duten esateko haren autoreari, batez ere iragarkian

9. Kontuan izan erantzun anitzeko itauna dela, pertsona berak aukera bat baino gehiago marka ditzake, edo bat ere ez.

aurkitzen diren arrazoibideak eta limurketa-bideak kontuan hartuta¹⁰; eta, bestetik, galdetu zaie ea sinesgarriagoa iruditzen ohi zaien irudiz hornitutako albistea, irudirik ez duena baino¹¹.

Ideologia eta balioak zerrendatu eta arrazoitzeko unean, maila ahuleko diskurtsoa aurkitu dugu oro har (ikus 7. grafikoa).

7. grafikoa: ideologia eta balioak ikus-entzunezkoetan (0-25 puntu).



Gaitasun ideologikoen ebaluazio honetan ikusi dugu ezen oso maila xehe eta ahuleko arrazoibideak darabiltzate Euskal Herriko eskola-gazteek. Ikus-entzunezkoen eduki sinbolikoetan aurkitu litezkeen berniz konnotatzaileak antzemateko eta deskribatzeko unean, ahul dabilta, oso. Jokoan dauden hogeita bost puntu horietatik, inork ez du erdia ere bere egin.

Halere, heldutasun kulturala eta pertsonala (adinarekin lotuta, jakina) giltzarri gertatzen da gaitasun interpretatzaileak garatzeko orduan. Adinean aurrera joan ahala, gaitasun interpretatzaileak ere garatzen doazela ikusi dugu, ezagutza orokor berriek pentsamendu autonomoa modu kritikoa garatzeko bide ematen baitute.

Erabat konbentziturik daude gazteak eta nerabeak esatean ezen irudiz lagundutako albiste bat sinesgarriagoa dela, irudirik ez duena baino. Eta arrazoia da manipulagaitzagoa iruditzen zaiela irudia, hitza baino.

Atal honetan, askoz sinesberagoak agertu dira neskak, mutilak baino. Baita hezkuntzaren sare pribatuan matrikulatutakoak, besteak baino. Eta, lehen hezkuntzakoak, bigarrenekoak baino.

4.6. Estetika


Herritar modernoak gaitasun berezitua garatu behar du ikus-entzunezkoen eduki sinbolikoak alderdi estetikit analizatzeko eta interpretatzeko. Zero eta hamabost puntu bitarteko ebaluazioa planteatu da gazteen gaitasun estetikoaren baloratzeko, erantzun irekia eskatzen zuen galdera baten bidez. Galde-sorta betetzen hasi aurretik erakutsitako iragarkietan ainguratu zen itauna.

10. Hiru galderek hartu dute pasarte hori garatzearen ardura, eta hogeita bost puntuko ebaluaziotik, hogeitaz puntu jokatzen ziren hor. Erantzun irekiko itaunak ziren hirurak.

11. Ataleko gainerako bost puntuak, bi galderatan jokatu dira: formatu itxiko galderak, biak.

Ikus-entzunezko produktuen dimentsio estetikoaren azalpenari erreparatuz gero, ikusten dugu ezen Euskal Herriko nerabeek eta gazteek ez dutela asko balioztatzen dimentsio hori. Eta hori horrela da: edo ez dutelako aintzakotzat hartzen dimentsio estetikoa, edo ez dakitelako azaltzen esango zuketean hori, hots, arrazoibideak falta zaizkielako, eta kontzeptuak azaltzeko beharrezkoa izan daitekeen hizkera teknikoa batere ezagutzen ez dutelako (ikus 8. grafikoa).

8. grafikoa: dimentsio estetikoaren ezagutza eta azalpena (0-15 puntu).




Ohiko azterketa akademiko baten emaitzak balira 8. grafikoak azaltzen dituenak, erraz asko ikusiko genuke ezen Euskal Herriko ia eskola-gazte bakar batek ere ez zukeela gaindituko froga. Izan ere, inkestatutako eskola-gazteen hamar gazteen artean bederatzik baino gehiagok ez baitu lortu atera zitzakeen puntuen erdia, bostetik behera geratu baita.

Datu ikaragarri horien baitan, azpimarratzekoa da ezen ez dagoela hezkuntza pribatua matrikulatutako ikasle bakar bat bera ere, azterketa hori gainditzen duenik, ezta Lehen Hezkuntza mailakorik ere.

5. Ondorio nagusiak

Baieztatua da gure hipotesi nagusia: AHULA DELA KOMUNIKAZIOAREN GAINEKO GAITASUNA ETA ALFABETIZAZIOA GURE GAZTEEN ARTEAN. Balizko ohiko azterketa akademiko baten emaitzetara ekarriko bagenu landa-lanak eman digun informazioa, esan beharko genuke ezen Euskal Herriko eskola-gazteen artean hamarretik hiru baizik ez dela hurbiltzen aprobatura (ikus 9. taula).

9. grafikoa: ikus-entzunezkoen gaineko alfabetizazioaren ebaluazioa (0-100 puntu).



Ondorioak

1. Euskal Herriko eskola-gazteak ez dira gai ikus-entzunezkoen lengoiaren funtsak deskribatzeko eta ez dakite zein baldintzaren arabera funtzionatzen duen. Ez dute diskurtso egituraturik begien aurrean dutena modu arrazoitu batean azaltzeko. Oro har, ez dute ezagutzen ikus-entzunezko lengoiaren ez gramatika ezta erretorika ere.
2. Oso ongi moldatzen dira eta ongi ezagutzen dituzte teknologia komunikatiboen erabilera-gaitasunak. Erabiltzaile handiak dira; ez, ordea, kritikoak.
3. Ez dakite gauza handirik teknologia komunikatiboek garraiatzen dituzten eduki sinbolikoen jabetza-eskubideei buruz.
4. Ikus-entzunezko produktua sortzeko eta banatzeko lan-errutinen eta bertan parte hartzen duten profesionalen eginkizunen gaineko ezagutza oso ahula dute.
5. Jasoketa aktiboaren kontzientzia eta gaitasun-maila apala dute.
6. Ikus-entzunezkoek oro har eta telebistak konkretuki kexatzeko arrazoi dezentente ematen dutela, konplexurik gabe esaten dute.
7. Kexa horiek nola bideratu, ez dakite jakin. Ez dakite nola jokatu eduki kexagarrien aurrean.
8. Telebistak igortzen dituen ideologia-zantzuak eta giza nahiz gizarte-balioak zerrendatzeko eta arrazoitzeko unean, maila ahuleko diskurtsoa erakusten dute.
9. Nerabeek eta gazteek ez dakite arrazoitzen kontsumitzen dituzten edukien dimentsio estetikoa.
10. Ikusitakoak ikusita, ondo legoke hezkuntza-sistema arautuan txertatzea ikasketa-lerro bereziak komunikazioaren mundua ulergarriagoa izan dakion gazteari, bizi dituen kontsumo-liluretatik harago.

Bibliografia

- Aguaded, J. I. (2009). "El Parlamento Europeo apuesta por la alfabetización mediática", *Comunicar*, **32**, Editorial de la revista.
- Aparici, R. (1994): *Los medios audiovisuales en la educación infantil, la educación primaria y la educación secundaria*, UNED, Madrid.
- Basterretxea, J.; Idoiaga, P.; Zarandona, E. eta Ramírez de la Piscina T. (2006): "Euskal herriko eskola-gazteak telebistaren katean", *Uztaro*, **55**, UEU, Bilbo, 63-87.
- Basterretxea, J.I.; Idoiaga, P.; Ramírez de la Piscina, T. eta Zarandona, E. (2007): *Alfabetizazio Berriak: Euskal Herriko neska-mutilak eta komunikabideak. Soziologiako Euskal Koadernoak-Cuadernos Sociológicos Vascos*, Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, Gasteiz.
- Buckingham, D. (2005): *Educación en medios. Alfabetización, aprendizaje y cultura contemporánea*, Paidós, Bartzelona.

- Considine, D. et. al. (2002): *Thinking Critically About media: Schools and families in Partnership*, CIC, Washington.
- Ferrés Prats, J. (2006). "La competencia en comunicación audiovisual: propuesta articulada de dimensiones e indicadores", *Quaderns del CAC*, monografikoa *L'educació en Comunicació Audiovisual*, **25**, 9-17.
- Forntcuberta, M. de (2001): "El rol de los medios de comunicación en la gestión del conocimiento", in Crovi D., *Comunicación y Educación: La perspectiva latinoamericana*, ILCE, Mexico DF, 57-71.
- Gainer, Jesse S. (2010): "Critical Media Literacy in Middle School: Exploring the Politics of Representation", *Journal of Adolescent & Adult Literacy*, vol. 53, **5**, 364-373, 2010eko otsaila.
- García Matilla, A. et. al. (2004) (ed.): *Convergencia multimedia y alfabetización digital*, UCM, Madrid.
- Hernández, F. (2000). *Educación y Cultura visual*, Octaedro, Barcelona.
- Jones, M. (1984): *Mass Media Education, Education for Communication and Mass Communication Research*, Unesco, Paris.
- Kaplun, M. (1998): *Una pedagogía de la comunicación*, Ediciones de la Torre, Madrid.
- Livingstone, S. eta Brake, D. R. (2010) "On the Rapid Rise of Social Networking Sites: New Findings and Policy Implications", *Children & Society*, vol. 24, **1**, 75-83, 2010eko urtarrila.
- Masterman, L. (1993): *La enseñanza de los medios de comunicación*, Ediciones de la Torre, Madrid.
- Medrano, M. C. (2008). "Televisión y educación: del entretenimiento al aprendizaje", *Teoría de la educación*, **20**, 205-224.
- Nathanson, A. I. (2002): "The Unintended Effects of Parental Mediation of Television on Adolescents", *Media Psychology*, vol 4, **3**, 207-230.
- , (2004): "Factual and Evaluative Approaches to Modifying Children's Responses to Violent Television", *Journal of Communication*, **54 (2)**, 321-336.
- Orozco, G. (1999): *La televisión entra al aula*, Fundación SNTE, Mexico.
- Ramirez de la Piscina, Tx.; Idoyaga, P.; Zarandona, E. eta Basterretxea, J. (2007) "Different shades of media literacy among Basque teenagers", in *Cultural Attitudes towards Technology and Communication*, Murdoch University, Australia, 680-695.
- Roberts, D.F. eta Foehr, U.L. (2004): *Kids & Media in America*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Stein, L. eta Prewitt, A. (2009): "Media Literacy Education in the Social Studies: Teacher Perceptions and Curricular Challenges", *Teacher Education Quarterly*, vol. 36, **1**, 131-148.
- Zarandona E.; Basterretxea J.; Idoyaga, P. eta Ramírez de la Piscina, T. (2008) "La alfabetización audiovisual entre adolescentes vascos: implicaciones para las prácticas educativas y propuestas de intervención", *Comunicación y Sociedad*, garai berria, **9**, Guadalajarako Unibertsitatea, Mexico, 119-143.

